*Para lograr aportaciones concretas desde la formación profesional a la cadena de valor de las empresas, 45 centros de Formación Profesional se han puesto en contacto con 997 empresas para realizar proyectos de colaboración. Como resultado de este trabajo, se han llevado a cabo 216 proyectos en colaboración con empresas. A pesar de que el número de colaboraciones no ha alcanzado el objetivo establecido (250); los centros han llevado muchos más contactos con las empresas de lo esperado, el objetivo era 250 contactos con empresas, y finalmente han sido 997.*

*En el curso 2022 se han trabajado 18 áreas de especialización, 6 entornos estratégicos han estado en marcha y se han trabajado 6 nodos de red enfocados a la vigilancia*

*Con el fin de desarrollar un modelo económico sostenible basado en el conocimiento, la mejora de la innovación, el fomento de la iniciativa emprendedora y el respeto medioambiental se trabaja para incrementar el potencial de la Bioeconomía y la Economía circular en la formación profesional con 175 docentes de 25 centros, impactando en 1.605 alumnos y alumnas.*

*Con el objetivo de desarrollar proyectos de emprendimiento activo se han trabajado en 85 ciclos de formación profesional de 78 centros 1.052 proyectos de cultura emprendedora con 4.497 alumnos y alumnas de FP.*

*En cuanto al diseño e implementación de programas de especialización, en el curso 2022-2023 hay 26 programas implementados, de los cuales el 100% han sido implementados en modalidad Dual. El número de alumnos y alumnas que han participado en estos programas durante el curso 2022-2023 ha sido de 135 en centros públicos y de 98 en centros privados concertados.*

*En cuanto al diseño e implementación de cursos de especialización, en el curso 2022-2023 hay 12 cursos de especialización diferentes implementados que cuentan con alumnado matriculado, de los cuales el 22%, han sido implementados en modalidad Dual. El número de alumnos y alumnas que han participado en estos cursos durante el curso 2022-2023 en centros públicos ha sido de 238 y en centros concertados de 81.*

Lanbide Heziketaren kalitatea handitzeko, ikaskuntza-metodologia berriak garatzen eta ezartzen lan egiten da, eta 2022an, Lanbide Heziketako 79 ikastetxetako 2.514 irakaslek eta 24.849 ikaslek ikaskuntza-metodologia berriak landu dituzte.

*Para elevar la calidad de la formación profesional se trabaja en el desarrollo e implementación de nuevas metodologías de aprendizaje y en el 2022, 2.514 docentes y 24.849 alumnos y alumnas de 79 centros de Formación Profesional han trabajado nuevas metodologías de aprendizaje.*

Gaur egun, 32 ikastetxek bereganatu dute antolaketa-egitura berria, Lanbide Heziketaren Legean planteatutako erronkei erantzuteko. Zentro horietatik, 21 ikastetxe integratuen sare publikokoak dira, eta, 11 itunpeko ikastetxeak dira.

*Actualmente 32 centros han adoptado una nueva estructura de organización que les permite dar respuesta a los retos planteados en la Ley de FP. De estos centros, 21 son de la red pública de centros integrados, y 11 de la red concertada*

Makineria eta/edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko diru-laguntzen deialdiarekin, 2 jarduketa-eremutan bereizia (1.eremua Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei zuzendua eta 2.eremua Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatu integratuei zuzendua), Lanbide-heziketa produkzio-sektoreen egungo eta etorkizuneko premietara eta pertsonen enplegagarritasunera egokitzea bermatzen da, enpresek kualifikazio eta espezializazio gero eta handiagoen arloan dituzten premiei erantzuteko. Deialdiko 2 eremuetan parte hartu dezaketen itunpeko ikastetxe-kopuru osoari dagokionez, parte hartu duten ikastetxeen ehunekoa % 72a izan da. 1. eremuko parte hartzea %66koa izan da, 2.eremuan berriz, %92koa.

*Con la convocatoria de subvenciones para la financiación de la adquisición o cuotas de arrendamiento de maquinaria y/o equipamiento, diferenciados en dos ámbitos de actuación (el ámbito 1 dirigido a los centros privados concertados de FP y el ámbito 2 dirigido a los centros integrados privados concertados de FP), se garantiza la adaptación de la formación profesional a las necesidades actuales y futuras de los sectores productivos y a la empleabilidad de las personas, como respuesta a la cada vez mayor necesidad de cualificación y especialización de las personas. Del total de Centros concertados que pueden participar en los dos ámbitos de la convocatoria, han participado el 72%. La participación en el ámbito 1 ha sido del 66%, mientras que en el ámbito 2 ha sido del 92%.*

Deialdiaren 1.eremuan diruz lagundutako ekipamenduak baliatu ditzaketen heziketa-ziklo guztiak kontuan hartuta, ekipamendu horiek baliatu dituen heziketa-zikloen ehunekoa %79,14 izan da. Era berean, 1.eremuan diruz lagundutako ekipamenduak baliatu dituzten ikasleen ehunekoa % 68 izan da.

*Teniendo en cuenta el número total de ciclos que pueden incorporar los equipamientos subvencionados en el ámbito 1 de la convocatoria, el porcentaje de ciclos que incorpora los mismos ha sido del 79,14%. Asimismo, el porcentaje total de alumnado que se ha beneficiado de los equipamientos subvencionados en el ámbito 1 ha sido del 68%.*

Diru-laguntzaren estaldura maila (esleitutakoa/eskatutakoa) %35ekoa izan da, bi eremuetan emandako eta eskatutako guztizkoa kontuan hartuta. Estaldura maila, deialdiak jasotzen duen eremu bakoitzeko bereizita, %33koa izan da 1.eremuaren kasuan, eta %36koa 2. eremuan.

*El grado de cobertura (concedido/solicitado) de la subvención ha sido del 35%, teniendo en cuenta el total concedido y solicitado para los dos ámbitos. El grado de cobertura, diferenciado por cada ámbito que comprende la convocatoria, ha sido del 33% en el caso del ámbito 1, y del 36% en el caso del ámbito 2.*

2022ko martxoaren 15eko Agindua (2022ko apirilaren 11ko EHAA), zeinaren bidez iragartzen baita dirulaguntzen deialdia 2022-2023 ikasturtean berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko, Lanbide Heziketako V. Euskal Planean zehaztutako estrategiari jarraitzen dioten Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetan.

*La Orden de 15 de marzo de 2022, (BOPV de 11 de abril de 2022), convoca subvenciones para la realización de proyectos de innovación y emprendimiento a desarrollar en el curso 2022-2023, en centros concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional alineados con la estrategia definida en el V Plan Vasco de Formación Profesional.*

2022ko uztailaren 28ko Ebazpenak diru-laguntzak eman zizkien itunpeko 20 ikastetxe pribaturi, 13 berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektu egiteko. Proiektu horiek ikastetxe batek edo gehiagok garatuko dituzte, lankidetzan, eta hurrengo eremuetan: Berrikuntza teknologikoa eta sistema adimendunak, eta biozientzien eta iraunkortasunaren eremua.

*La Resolución de 28 de julio de 2022, otorgó ayudas económicas a 20 centros privados concertados para la realización de 13 proyectos de innovación y emprendimiento, que serán desarrollados por uno o más centros, en colaboración, y que corresponden a los ámbitos de innovación tecnológica y sistemas inteligentes, y ámbito de biociencias y sostenibilidad.*

Horrez gain, 37 proiektu garatzeko zuzkidurak eman zitzaizkien ikastetxe publikoei. Proiektu horietan 36 ikastetxe publikok hartu dute parte.

*Además, se concedieron dotaciones a centros públicos para el desarrollo de 37 proyectos, en los que han participado 36 centros públicos.*

Laburbilduz, ikastetxe publikoek 37 proiektu garatu dituzte, itunpeko sare pribatukoek, 13, eta bi sareek 11 proiektutan parte hartu dute, guztira 61 proiektu landuta. Proiektuak sare publikoko 36 ikastetxek eta itunpeko sareko 20k garatu

*En resumen, los centros públicos han desarrollado 37 proyectos, los de la red privada concertada 13 y en 11 han participado de ambas redes, trabajando en total 61 proyectos. Los proyectos los han desarrollado 36 centros*

dituzte, eta nabarmendu behar da ikastetxe askok proiektu batean baino gehiagotan parte hartzen dutela. Azkenik, 185 irakaslek parte hartu dute proiektu horietan; horietatik, 62 itunpeko sarekoak izan dira eta 123, sare publikokoak.

*de la red pública y 20 de la concertada y hay que destacar que muchos centros participan en más de un proyecto. Por último, en estos proyectos han participado 185 docentes, 62 de la red concertada y 123 de la pública.*

Horrez gain. 2022ko apirilaren 26ko Aginduak (maiatzaren 17ko EHAA) Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egin zuen, 2022-20223o ikasturtean Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduketa-lerroak gara ditzaten.

*Por otro lado, la Orden de 26 de abril de 2022 (BOPV de 17 de mayo) convoca subvenciones para el desarrollo, en el curso escolar 2022-2023, de las líneas de actuación de los ámbitos estratégicos en el despliegue del V Plan Vasco de la Formación Profesional, dirigidas a los centros privados concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional.*

Agindu horren babesean, 2022ko abuztuaren 29ko Ebazpenak dirulaguntzak eman zizkien 24 ikastetxeri, jarduera-ildo gara zitzaten. Jarduera-ildo horiek honako arlo estrategiko hauei dagozkie: espezializazio-programak, ikaskuntza aktiboko eta lankidetzako metodologiak, adimen lehiakorra, ekintzailetza, berrikuntza aplikatua automobilgintzaren, sormen-industrien, energiaren, makinen Interneten, fabrikazio gehigarriaren, elikagaien, bioteknologien eta fabrikazio aurreratuaren sektoreei dagokienez. Ikastetxeei dagokienez, helburua ez da lortu, 24 zentrori eman baitzaie dirulaguntza, eta ez 30i; hala eta guztiz ere, aurreikusi baino jarduera gehiago finantzatu dira, 47, helburua 35 izanik.

*Al amparo de dicha Orden, la Resolución de 29 de agosto de 2022, otorgó subvenciones a 24 centros, para el desarrollo de las líneas de actuación, que corresponden a los ámbitos estratégicos de programas de especialización, metodologías de aprendizaje activo-colaborativas, inteligencia competitiva, emprendizaje, innovación aplicada en relación con los sectores de automoción, industrias creativas, energía, internet de las máquinas, fabricación aditiva, alimentario, biotecnologías y fabricación avanzada. No se ha alcanzado el objetivo en cuanto a centros, ya que se ha subvencionado 24 centros; y no 30; a pesar de ello, se han financiado más actividades de las previstas, 47, siendo el objetivo 35.*

2022ko ekainaren 21eko Aginduak (irailaren 13ko EHAA, 175. zk.) 2022-2023 ikasturtean Lanbide Heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko itunpeko ikastetxe pribatuei laguntzak emateko prozedura eta irizpideak arautzen ditu.

*La Orden de 21 de junio de 2022 (BOPV nº 175 de 13 de septiembre) regula el procedimiento y establece los criterios para otorgar ayudas a centros privados concertados para el fomento de la cultura emprendedora entre el alumnado de formación profesional, en el curso académico 2022-2023.*

Agindu horren babesean, Lanbide Heziketako sailburuordearen 2022ko azaroaren 14ko ebazpenak laguntzak ematen dizkie itunpeko ikastetxe pribatuei, 2022-2023 ikasturtean Lanbide Heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko. Horien onuradun dira itunpeko 17 ikastetxe pribatutako 928 ikasle.

*Al amparo de dicha Orden, la resolución de 14 de noviembre de 2022 del Viceconsejero de Formación Profesional otorga ayudas a centros privados concertados para el fomento de la cultura emprendedora entre el alumnado de formación profesional, en el curso académico 2022-2023. Resultando beneficiarios de las mismas, 928 alumnos y alumnas de 17 centros privados concertados.*

Gainera, ikastetxe publikoei kultura ekintzailea sustatzeko zuzkidura ekonomikoak eman zitzaizkien, eta 18 ikastetxe publikotako 556 ikaslek jaso zuten diru laguntza.

*Además, se otorgaron dotaciones económicas a centros públicos para el fomento de la cultura emprendedora en las que participaron 556 alumnos y alumnas de 18 centros públicos.*

Beraz, azkenean, Lanbide Heziketako 35 ikastetxetako 1.484 ikaslek lan egin zuten kultura ekintzailea sustatzeko, 253 simulazio-proiektu abian jarrita.

*Por lo que, finalmente desde 35 centros de Formación Profesional 1.484 alumnas y alumnos trabajaron en el fomento de la cultura emprendedora mediante la puesta en marcha de 253 proyectos de simulación.*

Ezarri diren Lanbide Heziketako tituluen OCDak berrikusi eta eguneratu dira, gure produkzio- eta gizarte-ingurunearen gaur egungo beharren arabera. Zehazki, EHAAn argitaratutako tituluen 7 dekretu berrikusi eta eguneratu dira.

*Se han revisado y actualizado, a las necesidades actuales de nuestro entorno productivo y social, los DCBs de los títulos de Formación Profesional implantados. Concretamente se han revisado y actualizado 7 Decretos de títulos publicados en el BOPV.*

23 Lanbide Heziketako ikastetxek eskaintzen dute eskaintza eleanitza. Guztira, eleaniztunean 36 ziklo eskaini dira. Honek, eskaintza osoaren %31 suposatzen du.

*El número de centros que ofertan Formación Profesional multilingüe es de 23 centros. En total se han implantado en multilingüe 36 ciclos, lo que supone un 31% sobre el total de la oferta.*

2022ko uztailaren 26ko Aginduaren bidez (abuztuak 31ko EHAA), prestakuntza-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan 2022-2023 ikasturtean atzerriko hizkuntza indartzeko programarako dirulaguntzen deialdia egin zen.

*La Orden de 26 de julio de 2022, (BOPV de 31 de agosto), convocó subvenciones para el programa de refuerzo de lengua extranjera durante el curso académico 2022-2023, en centros privados concertados, que imparten ciclos formativos.*

Agindu horren babesean, 2022ko urriaren 14ko Ebazpenak dirulaguntzak eman zizkien itunpeko 14 ikastetxe pribaturi, ikasleen eskola-orduetatik kanpo atzerriko hizkuntza indartzeko ekintzak garatzeko. Atzerriko hizkuntzako errefortzu-ekintza horietan parte hartu zuten ikastetxe pribatu onuradunetako ikasleak 297 izan ziren.

*Al amparo de dicha Orden, la Resolución de 14 de octubre de 2022 otorgó subvenciones a 14 centros privados concertados para desarrollar acciones de refuerzo de lengua extranjera fuera del horario lectivo del alumnado. El número de alumnos y alumnas, de los centros privados beneficiarios, que participó en dichas acciones de refuerzo en lengua extranjera ascendió a 297.*

Gainera, dotazio ekonomikoak eman zitzaizkien ikastetxe publikoei, Lanbide Heziketako ikasleekin atzerriko hizkuntza indartzeko ekintzak garatzeko. Ikastetxe publiko onuradunak 24 izan ziren guztira, eta 297 ikaslek parte hartu zuten atzerriko hizkuntza indartzeko ekintzen garapenean.

*Además, se otorgaron dotaciones económicas a centros públicos para el desarrollo de acciones de refuerzo de lengua extranjera con su alumnado de Formación profesional. El total de centros públicos beneficiarios fue de 24, y participaron 297 alumnos y alumnas en el desarrollo de acciones de refuerzo de lengua extranjera.*

Atzerriko hizkuntza eskola-orduetatik kanpo indartzeko ekintzetan parte hartzen duten ikasleei dagokienez, itunpeko ikastetxeetan helburua bete da, baina ikastetxe publikoetan ez.

*Se alcanza el objetivo en cuanto al alumnado participante en las acciones de refuerzo de lengua extranjera de la red concertados, pero no en la pública.*

Hezkuntza-Sistemako Lanbide-Heziketako zikloetan euskalduntze programa sendotzeko, 2022/2023 ikasturtean, sare publikoko LHko ikastetxeetan B edo D ereduetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa %56,26 izan da. Sare pribatu-itunduko LHko ikastetxeetan, ehuneko hori %35,73koa izan da.

*Para fortalecer el Plan de euskaldunización de los ciclos formativos de la Formación Profesional del sistema educativo, el porcentaje de alumnado matriculado en centros de FP de la red pública en modelos B o D, durante el curso 2022-2023, ha sido del 56,26%. En los centros de FP de la red privada-concertada, el porcentaje ha sido del 35,73%.*

Txandakako prestakuntza dualaren programaren barruan, gaitasunak lantzeko eta lanbide-esparruetara egokitzeko tresna den heinean, 2022-2023 ikasturtean industria-arloko lanbide-zikloen % 73k ikasleak dituzte zikloa modalitate dualean ikasten. Zerbitzuen arloko lanbide-zikloen kasuan, ehuneko hori % 58ra iristen da. Zikloa modalitate dualean egiten duten ikasleek % 77,60ko laneratzea dute zikloa amaitzean.

*En el programa de Formación Dual en Alternancia como vía para acelerar el desarrollo competencial y adaptación a los ámbitos profesionales, el 73 % de los ciclos profesionales del ámbito industrial tienen alumnado cursando el ciclo en la modalidad dual, en el curso 2022-2023. En el caso de los ciclos profesionales del ámbito de servicios, este porcentaje alcanza el 58 %. El alumnado que cursa el ciclo en la modalidad dual, tiene una inserción laboral del 77,60 %, en el momento de finalizar el ciclo.*

Modalitate dualean parte hartzen duten ikasleei dagokienez, ikastetxe publikoetako ikasleen %54 modalitate dualean parte hartzen ari da; ikastetxe pribatu eta itunduetan, berriz, ikasleen % 46 ari da parte hartzen. Lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko diru-laguntzen deialdiari dagokionez, eskatutako planen % 100erako eman dira.

*En cuanto al alumnado participante en la modalidad dual, el 54% del alumnado de los centros públicos está participando en la modalidad dual, mientras que en los centros privados-concertados está participando el 46%. En relación con la convocatoria de subvenciones para desarrollar programas de Formación Profesional Dual, estas han sido concedidas para el 100% de los planes solicitados.*

Ekintzailetzaren alorrean, hainbat ekintza bultzatu dira Lanbide Heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko. Ekintza horien ondorioz, Lanbide Heziketako 20.472 ikaslek ekintzailetzarako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzetan parte hartu dute.

*En relación con el emprendimiento se han impulsado diferentes acciones en relación con el fomento de la cultura emprendedora entre el alumnado de Formación Profesional. Como resultado de dichas acciones 20.472 alumnos y alumnas de Formación Profesional han participado en acciones de sensibilización y formación para el emprendimiento.*

Horrez gain, 2021-2022 ikasturtean 76 enpresa sortu dira Urratsbat programaren laguntzarekin.

*Además, en el curso académico 2021-22 se han creado 76 empresas con el apoyo del programa Urratsbat.*

Lanbide Heziketako sailburuordeak 2022-2023 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen antolaketari buruzko ebazpenaren helburua Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren eskumenekoak diren Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen antolamendurako eta funtzionamendurako irizpideak adieraztea da. Ebazpen horren arabera, ikastetxe integratuen zuzendaritza-taldeak ikastetxearen urteko plana egingo du ikasturte bakoitzaren

*La Resolución del Viceconsejero de Formación Profesional sobre la organización del curso 2022-2023 en los centros integrados de Formación Profesional en la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene como finalidad señalar los criterios para la organización y el funcionamiento de los centros integrados de Formación Profesional competencia de la Viceconsejería de Formación Profesional. Esta Resolución establece que el equipo directivo del centro*

hasieran. Urteko plan horrek genero-berdintasunarekin lotutako bi ekintza jaso beharko ditu gutxienez.

*integrado elaborará, al principio de cada curso, un Plan anual del centro. Este Plan Anual deberá contener al menos dos acciones relacionadas con la igualdad de género.*

Bestalde, LHko ikasle guztiak kontuan hartuta (aurrez aurreko eskaintza osoa, eskaintza partziala eta urrutiko eskaintza), industria-zikloetako emakumezko ikasleen ehunekoa %11,31 izan da 2022-2023 ikasturtean.

*Por otro lado, teniendo en cuenta todo el alumnado de FP (oferta presencial completa, oferta parcial y oferta a distancia), el porcentaje de alumnado femenino en los ciclos industriales en el curso 2022-2023 ha sido del 11,31%.*

15. ZAILTASUN GEHIEN DUTEN IKASLEEI BIZI OSORAKO IKASKUNTZAKO GAITASUNAK HAR DITZATEN LAGUNTZEA, BIZITZA AKTIBO EGIN EDO HEZKUNTZA-SISTEMAN SEGI DEZATEN ERRAZTEKO

*15. CONTRIBUIR A QUE EL ALUMNADO CON MAYORES DIFICULTADES ADQUIERA O COMPLETE LAS COMPETENCIAS DEL APRENDIZAJE A LO LARGO DE LA VIDA, PARA FACILITAR SU TRANSICIÓN HACIA LA VIDA ACTIVA O FAVORECER SU CONTINUIDAD EN EL SISTEMA EDUCATIVO*

Oinarrizko mailako Lanbide Heziketan aplikatutako Metodologia ikasleen premietara egokitzen da, baita ikaskuntza jarraituaren gaitasunak modu mailakatuan eskuratzeari ere, ikasleei bizitza aktibo eta hiritarrerako trantsizioa egiten eta hezkuntza-sisteman segi dezaten errazteko.

*La metodología aplicada en la Formación Profesional de grado básico se adapta a las necesidades del alumnado y a la adquisición progresiva de las competencias del aprendizaje permanente para facilitar a cada alumno y alumna la transición hacia la vida activa y ciudadana y su continuidad en el sistema educativo.*

27 ikastetxe publikotan oinarrizko mailako hainbat heziketa-ziklo eskaintzen dira. Oinarrizko mailako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxeak berriz, 46 dira.

*Actualmente, tenemos 27 centros públicos en los que se ofertan ciclos formativos de grado básico. Los centros concertados que ofertan ciclos de grado básico son 46.*

Halaber, 17 dira oinarrizko mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak emateko eskumena eskuordetuta duten udal eta/edo toki-erakundeak.

*Así mismo, tenemos 17 centros municipales y/o mancomunidades en los que se ha realizado una delegación de competencia para la impartición de ciclos formativos de grado básico.*

Guztira 2022/2023 ikasturtean, talde-kopurua 369 izan da.

*En total, en el curso 2022/2023, el número de grupos ha sido de 369 grupos.*

Udal eta/edo toki erakundeetan oinarrizko mailako Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa %23,29 izan da.

*El porcentaje de alumnado de Formación Profesional de grado básico en centros municipales ha sido del 23,29%.*

Oinarrizko mailako Lanbide heziketako ikasleen ehunekoa 68,29 izan da itunpeko ikastetxe pribatuetan.

*El porcentaje de alumnado de Formación Profesional de grado básico en centros privados-concertados ha sido del 68,29%.*

Erdi-mailako prestakuntza-zikloren bat egin duten ikasleen %15 oinarrizko lanbide-heziketatik sartu dira.

*Del alumnado que ha accedido a algún ciclo formativo de grado medio, el 15% ha accedido desde la Formación Profesional de grado básico.*

Oinarrizko Lanbide Heziketa egin duten goi-mailako heziketa-zikloetako tituludunak %2,7 izan dira.

*El porcentaje de alumnado titulado en ciclos formativos de grado superior que ha cursado la Formación Profesional de grado básico ha sido del 2,7%.*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 4223 UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZA | *4223 ENSEÑANZA UNIVERSITARIA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 07 HEZKUNTZA | *07 EDUCACIÓN* |
| UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE POLÍTICA Y COORDINACIÓN UNIVERSITARIA* |

## HELBURUA

1. EUSKAL UNIBERTSITATE SITEMAREN SUSTAPENA (EUS): EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN JARDUERARAKO DIRU-LAGUNTZA

2. EUSKAL UNIBERTSITATE SITEMAREN SUSTAPENA (EUS): DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN JARDUERARAKO DIRULAGUNTZA

3. UNIBASQ-EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN JARDUERARAKO DIRULAGUNTZA

4. BESTE ERAKUNDE UNIBERTSITERIO BATZUEN FUNTZIONAMENDUAN LAGUNTZEA

5. UNIBERTSITATE-EREMUKO ZENBAIT EKIMEN ETA EKINTZA OSAGARRIRI LAGUNTZEA

## *OBJETIVO*

*1. IMPULSO DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO (SUV): SUBVENCIÓN A LA ACTIVIDAD DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA*

*2. IMPULSO DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO (SUV): SUBVENCIÓN A LA ACTIVIDAD DE LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO Y DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA*

*3. SUBVENCIÓN A LA ACTIVIDAD DE UNIBASQ-AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO.*

*4. COLABORACIÓN EN EL FUNCIONAMIENTO DE OTRAS INSTITUCIONES UNIVERSITARIAS*

*5. APOYO A DIVERSAS INICIATIVAS Y ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS EN EL ÁMBITO UNIVERSITARIO*

## BETETZE MAILA

1. EUSKAL UNIBERTSITATE SITEMAREN SUSTAPENA (EUS): EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN JARDUERARAKO DIRU-LAGUNTZA

Ohiko diru-laguntzei, IV. eta VII. Kapituluetan eta EHUren gastu arruntak eta kapital-gastuak ordaintzera bideratuei, esker bere jarduera garatu ahal izan du EHUk. Gastu arruntetan pertsonalaren kostuak finantzatzeko dotazioak, pertsonal irakasle eta ez irakaslearen kostuak finantzatzeko dotazio zuzena barne, pertsonal irakasle eta ikertzailearen ordainsari-osagarri gehigarriak eta aipatutako pertsonalaren irakaskuntza-merezimenduak sartzen dira.

2022ko aurrekontu-ekitaldian 2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Planaren Kontratu-Programetan 2021. urtekoa gauzatzea berrikusi da eta EHUrekin hitzartutako Kontratu-Programen 2022ko zenbatekoaren %30 aurreratu da. Horiek horrela, behar bezala justifikatutako zenbatekoak ordaindu dira. Kontratu-Programetan aurreikusitako jarduera desberdinak, aurrekontuan adierazle gisa sartuak, behar bezala gauzatu dira. Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak aztertu ditu EHUk aurrera

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. IMPULSO DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO (SUV): SUBVENCIÓN A LA ACTIVIDAD DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA*

*Las subvenciones ordinarias, tanto en capítulo IV como en capítulo VII, destinadas a financiar los gastos corrientes y de capital de la UPV/EHU, han posibilitado que ésta pueda desarrollar su actividad. En los gastos corrientes se incluyen las dotaciones para financiar los costes de personal, incluida la dotación directa para financiar los costes del personal docente y no docente, los complementos retributivos adicionales del personal docente e investigador, así como, los méritos docentes del citado personal.*

*Durante el ejercicio presupuestario de 2022 se ha revisado la ejecución de la anualidad 2021 de los Contratos-Programa del Plan del Sistema Universitario 2019-2022 y se ha anticipado, el 30% de la anualidad 2022 de los Contratos-Programa suscritos con la UPV/EHU, procediéndose al abono de los importes correctamente justificados. Se han realizado satisfactoriamente las distintas actuaciones previstas en los Contratos-Programa, incluidas como indicadores en el presupuesto. Unibasq,*

eramandako Kontratu-Programa desberdinetan agertzen ziren jarduerak eta gauzatzeko prozesuari ebaluazio positiboa eman dio.

*Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco ha analizado las acciones contenidas en los distintos Contratos-Programa llevadas a cabo por la UPV/EHU, evaluando satisfactoriamente su ejecución.*

UPV/EHUren jardueretan 4.494 irakasle ikertzailek eta administrazio eta zerbitzuetako 1.600 langilek parte hartu dute. Era berean, 3 campus diruz lagundu dira, Kontratu-Programa barruko 43 jarduera finalisten bidez.

*En el desarrollo de las actividades de la UPV/EHU han participado 4.494 efectivos de personal docente investigador y 1.600 efectivos de personal de administración y servicios. Asimismo, se han subvencionado 3 campus a través de 43 actividades finalistas dentro de los Contratos-Programa.*

Unibertsitate eta enpresaren arteko harremanak sustatzeko programak bultzatzeko prozesuan, 13 (10 gradu eta 3 master) izan dira aipamen duala izan duten titulazioak/ibilbideak, guztira 487 matrikulaziorekin.

*Dentro del impulso de programas de fomento de las relaciones Universidad-Empresa, el número de titulaciones/itinerarios con mención dual ha sido de 13 (10 grados y 3 másteres), con un total de 487 matriculaciones.*

Nazioartekotzea sustatzeko programak bultzatzeari dagokionez, 8 titulazio (4 gradu eta 4 master) izan dira. Guztira 449 matrikulazio izan dira.

*En cuanto al impulso de programas de fomento de la internacionalización, han sido un total de 8 titulaciones (4 grados y 4 másteres), con un total de 449 matriculaciones.*

3.330 irakasle eta ikertzaileren ordainsari-osagarriak finantzatu dira. Kopuru hori memorian sartuta zegoena baino txikiagoa da eta horrek osagarri horiek apur-apurka jaisten ari direla jartzen du agerian, irakasleen erretiroengatik.

*Se ha financiado los complementos retributivos de 3.330 docentes y personal investigador, magnitud inferior a la incluida en la memoria que pone de manifiesto la reducción progresiva de estos complementos debida a las jubilaciones del profesorado.*

8.360 ikasleri salbuetsi zaie tasak eta administrazio-eskubideak ordaindu behar izatetik.

*Han sido 8.360 estudiantes a los que se les ha aplicado las exenciones de tasas y derechos administrativos*

Halaber, Gizarte Kontseiluaren funtzionamendua, aurreikusitako finantzazioarekin, bermatu da.

*Asimismo se ha garantizado el funcionamiento del Consejo Social con la financiación prevista.*

Bilboko Medikuntza fakultateko obrak hasteko dotazioa sartzen zuen Inbertsioen Hainbat Urtetako Programari dagokionez, ez da gauzatu, kontratua formalizatzeari uko egin baitio enpresa esleipendunak. Lizitazioa berriro egin da, eta obrak 2023an hastea aurreikusten da.

*En cuanto al Programa Plurianual de Inversiones, que incluía la dotación para el inicio de las obras de la Facultad de Medicina en Bilbao, no se ha ejecutado ya que la empresa adjudicataria, renuncia a la formalización del contrato. Se ha vuelto a realizar la licitación.*

2. EUSKAL UNIBERTSITATE SITEMAREN SUSTAPENA (EUS): DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN JARDUERARAKO DIRU-LAGUNTZA

*2. IMPULSO DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO (SUV): SUBVENCIÓN A LA ACTIVIDAD DE LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO Y DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA*

2022ko aurrekontu-ekitaldian 2021. urtekoa gauzatzea berrikusi da 2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Planaren Kontratu-Programetan eta 2022ko zenbatekoaren %30 aurreratu da Deustuko Unibertsitatearekin hitzartutako Kontratu-Programetan. Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak Deustuko Unibertsitateak aurrera eramandako Kontratu-Programa desberdinetan dauden jarduerak aztertu ditu eta haien gauzatzeari ebaluazio positiboa eman dio.

*Durante el ejercicio presupuestario de 2022 se ha revisado la ejecución de la anualidad 2021 de los Contratos-Programa del Plan del Sistema Universitario 2019-2022 y se ha anticipado, el 30% de la anualidad 2022 de los Contratos-Programa suscritos con la Universidad de Deusto. Unibasq, Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco ha analizado las acciones contenidas en los contratos-programa llevadas a cabo por la esta universidad, evaluando su ejecución correctamente.*

Deustuko Unibertsitatean matrikulatutako ikasleei aplikatzen zaizkien prezio publikoetatik salbuesteko eta hobariak emateko behar den finantzaziorako diru-laguntza ordaindu da. 1.030 ikasle izan dira tasa eta eskubide akademikoak ordaindu behar izatetik salbuestearen onuradun.

*Se ha abonado la subvención para la financiación de las exenciones y bonificaciones de los precios públicos aplicados al alumnado matriculado en la Universidad de Deusto, siendo 1.030 el número de alumnado que se ha beneficiado de las exenciones de tasas y derechos académicos.*

Unibertsitate eta enpresaren arteko harremanak sustatzeko programak Deustuko Unibertsitatearekin sustatzeari dagokionez,11koa izan da aipamen duala duten titulazioen /ibilbideen kopurua, guztira 87 matrikulaziorekin.

*En cuanto al impulso de programas de fomento de las relaciones Universidad-Empresa con la Universidad de Deusto, el número de titulaciones/itinerarios con dicha mención dual ha sido de 11, con un total de 87 matriculaciones.*

Nazioartekotze-programak Deustuko Unibertsitatean

*En cuanto al impulso de programas de fomento de la*

sustatzeari dagokionez, 5ekoa izan da akreditazio hori duten titulazioen kopurua, guztira 1.455 matrikulaziorekin.

*internacionalización en la Universidad de Deusto, el número de titulaciones con dicha acreditación han sido 5, con un total de 1.455 matriculaciones.*

Deustuko Unibertsitateak Unibertsitate Europarren Partzuergoan parte hartzean markatutako helburuak bete dira.

*Se han cumplido con los objetivos marcados por la Universidad de Deusto en su participación en el Consorcio de Universidades Europeas UNIC.*

3. UNIBASQ-EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN JARDUERARAKO DIRU-LAGUNTZA

*3. SUBVENCIÓN A LA ACTIVIDAD DE UNIBASQ-AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO.*

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari egin zaizkion transferentziek haren gastu arruntak eta hornikuntza-gastuak finantzatzeko balio izan dute

*Las transferencias a Unibasq- Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco, han servido para financiar sus gastos corrientes y de equipamiento.*

4. BESTE ERAKUNDE UNIBERTSITERIO BATZUEN FUNTZIONAMENDUAN LAGUNTZEA

*4. COLABORACIÓN EN EL FUNCIONAMIENTO DE OTRAS INSTITUCIONES UNIVERSITARIAS*

Nevadako Unibertsitateko, Reno (AEB) Euskal Ikasketen Zentroarekin ari izan da lankidetzan, euskal ondarea eta kultura ezagutzeko eta hedatzeko prozesua sustatzeko eta Euskal Herriak beste kultura batzuekin loturak izateko harremanei laguntzeko.

*Se ha colaborado con el Centro de Estudios Vascos de la Universidad de Nevada, Reno (USA) para promover el conocimiento y difusión del patrimonio y de la cultura vasca y fomentar las relaciones de unión del pueblo vasco con otras culturas.*

Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Goi Eskolan (TECNUM) matrikulatutako ikasleei prezio publikoetatik salbuesteko eta hobariak emateko finantzaziorako diru-laguntza ordaindu da, eta 205ekoa izan da tasak eta eskubide akademikoak ordaindu behar izatetik salbuetsita izan diren ikasle onuradunen kopurua.

*Se ha abonado la subvención para la financiación de las exenciones y bonificaciones de los precios públicos aplicados al alumnado matriculado de la Escuela Superior de Ingenieros de la Universidad de Navarra (TECNUN), siendo 205 el número de alumnado que se ha beneficiado de las exenciones de tasas y derechos académicos.*

UNEDekin hitzartutako lankidetza-hitzarmenarekin parte hartu da Bergara, Portugalete eta Vitoria-Gasteizko zentro elkartuak finantzatzeko prozesuan. Izan ere, unibertsitate-irakaskuntzetako kurtso desberdinetan eta 25 eta 45 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko ikastaroetan matrikulatutako 6.460 ikasleri eman diete zentro elkartu horiek zerbitzua 2021-2022ko ikasturtean.

*Con el convenio de colaboración suscrito con la UNED se ha participado en la financiación de los Centros Asociados de Bergara, Portugalete y Vitoria-Gasteiz que en el curso académico 2021-2022 han dado servicio a 6.460 alumnos/as matriculados/as en los distintos cursos de enseñanzas universitarias y en los cursos de acceso a la Universidad para mayores de 25 y 45 años.*

2022ko urteko programa garatzeko diru-laguntza bat eman zaio UEUri (Udako Euskal Unibertsitatea).

*Se ha concedido una subvención a la UEU (Udako Euskal Unibertsitatea) para desarrollar de su Programa 2022.*

Udako Euskal Unibertsitateren "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterraren " *online* " prestakuntza-eskaintza finantzatu da, EHUri atxikitako Goi.eus ikastegiaren bidez.

*Se ha financiado la oferta formativa online del máster "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra, por parte de Udako Euskal Unibertsitatea, mediante el centro adscrito a la UPV/EHU Goi.eus.*

2021ean Euskampus Fundazioarekin izenpetutako lankidetza-hitzarmenaren bidez diruz lagundu dira Euskampus agregazio-espazioa sustatzeko, euskal unibertsitate-sistemak eragile sozioekonomikoekin egin beharreko jarduerak hedatzeko eta Euskadiren nazioarteko proiekzioa sustatzen duten ikerketa-proiektu singularrei laguntzeko jarduerak.

*A través del convenio de colaboración suscrito en 2021 con Euskampus Fundazioa, se han subvencionado acciones para la promoción del espacio de agregación Euskampus, la difusión de actuaciones del sistema universitario vasco con agentes socioeconómicos y el apoyo a proyectos singulares de investigación que promuevan la proyección internacional de Euskadi.*

ENLIGHT Unibertsitate Europarren programak aurrera eraman eta martxan jartzeko diru-laguntza nominatibo bat eman zaio Euskampus-i. Aliantza horrek emango du Euskadiko goi irakaskuntzaren kalitatea eta lehiakortasuna sustatzeko aukera.

*Se ha concedido una subvención nominativa a Euskampus para el desarrollo y puesta en marcha de los programas de universidades Europeas ENLIGHT. Esta alianza permite fomentar la calidad y la competitividad de la enseñanza superior en Euskadi.*

Unibertsitatea + Enpresa 2022 Euskal Estrategian diruz lagundu dira AIC-Automotive Intelligence Center-en

*Dentro de la Estrategia Vasca Universidad+Empresa 2022, se han subvencionado acciones de AIC-Automotive*

jarduerak, AIC-Automotive Intelligence Center-en eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren artean izenpetutako hitzarmenaren markoan.

*Intelligence Center en el marco del convenio suscrito entre AIC-Automotive Intelligence Center y la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

5. UNIBERTSITATE-EREMUKO ZENBAIT EKIMEN ETA EKINTZA OSAGARRIRI LAGUNTZEA

Bilboko “Begoñako Andra Mari“ Irakasleen Unibertsitate Eskolari emandako diru-laguntza izan da ikastetxe horrek 2022. urtean izan duen aurrekontua finantzatzeko lagungarri. Izan ere, 807 ikasle matrikulatu ziren 2021-2022ko ikasturtean ikastetxe horretan eta, haietatik, guztira 148 izan dira kuotaren kenkari gehigarriaren onuradun.

Dirulaguntza bat eman zaio Elgoibarko Makina-Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioko Alternantziako Ingeniaritza Eskolari, haren jarduera eta hezkuntza-proiektua aurrera eramateko prozesuan laguntzeko. Izan ere, 222 ikaslek hartu dute hezkuntza-proiektu horretan parte.

*5. APOYO A DIVERSAS INICIATIVAS Y ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS EN EL ÁMBITO UNIVERSITARIO*

*La subvención a la Escuela Universitaria de Magisterio “Begoñako Andra Mari” de Bilbao ha contribuido a la financiación del presupuesto de este centro para el año 2022, que en el curso 2021-2022 tuvo una matrícula de 807 alumnos/as, de los que se han beneficiado de la deducción adicional de la cuota un total de 148 alumnos y alumnas.*

*Se ha concedido una subvención a la Escuela de Ingeniería en Alternancia con la Fundación para la Formación Técnica en Máquina-Herramienta de Elgoibar para colaborar en el desarrollo de su actividad y de su proyecto educativo, en el que han participado 222 estudiantes.*

**PROGRAMA** / ***PROGRAMA***

4224 ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK / *4224 ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN ESPECIAL*

**ARDURADUNA** / ***RESPONSABLE***

07 HEZKUNTZA / *07 EDUCACIÓN*

IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA / *DIRECCIÓN DE CENTROS Y PLANIFICACIÓN*

## HELBURUA

1. IRAKASKUNTZA-ESKAINTZA HIZKUNTZA-ESKOLA OFIZIALETAN ETA ELKARRIZKETA LAGUNTZAILEEN PROGRAMA

2. IRAKASKUNTZA ARTISTIKOKO ETA KIROL IRAKASKUNTZAKO ESKAEREI ERANTZUNA EMATEA, IKASLEEI KALITATEZKO IRAKASKUNTZA ESKAINTZEA ETA IRAKASKUNTZA HORREN GIZARTE-TRANSFERENTZIA SUSTATZEA

## *OBJETIVO*

*1. OFERTA DE ENSEÑANZAS EN LAS ESCUELAS OFICIALES DE IDIOMAS Y PROGRAMA DE AUXILIARES DE CONVERSACIÓN*

*2. DAR RESPUESTA A LA DEMANDA DE ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS Y LAS ENSEÑANZAS DEPORTIVAS Y OFRECER A LOS ALUMNOS Y ALUMNAS UNA ENSEÑANZA DE CALIDAD POTENCIANDO LA TRANSFERENCIA SOCIAL DE LA MISMA*

## BETETZE MAILA

1. IRAKASKUNTZA-ESKAINTZA HIZKUNTZA-ESKOLA OFIZIALETAN ETA ELKARRIZKETA LAGUNTZAILEEN PROGRAMA

Bai Hizkuntza Eskoletako hizkuntzen irakaskuntzan eta baita hizkuntza laguntzaileen programaren helburuak bete egin dira, horretarako presupuestoetan ezarritako diru laguntzen bidez.

2022-2023 ikasturtean 14 Hizkuntza Eskola Ofizialetako hizkuntzen irakaskuntzaren eskaintza mantendu egin da, eta Arrasate eta Azkoitiako gela desplazatuak ere bere horretan mantentzen dira da, Eibarko Hizkuntza Eskolaren ardurapean, betiere.

2022-2023 ikasturtean, aurreko urteetako matrikulazio-joerari eutsi dio.

2022-2023 ikasturtean Euskal Herriko Elkarte Autonomoko Hizkuntza Eskola Ofizialek 23.475 ikasle ofizial dituzte, 1.092 taldetan, eta 6.239 ikasleri egin zizkieten proba libreak 2022ko maiatza eta ekaina bitartean.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak HEOetan eskaintza erdipresentziala bultzatzen jarraitzen du. 2022-2023 ikasturte honetan 149 talde dira. Igoera handia dago aurreko urtearekin alderatuta.

Ikasle ofizialeei klaseak ematen eta ofizialen zein libreen azterketak zuzentzen 308 irakasle aritu dira.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. OFERTA DE ENSEÑANZAS EN LAS ESCUELAS OFICIALES DE IDIOMAS Y PROGRAMA DE AUXILIARES DE CONVERSACIÓN*

*Tanto en la oferta de enseñanzas de idiomas de las Escuelas Oficiales de Idiomas como en el Programa de auxiliares de conversación, se han cubierto los objetivos previstos con las dotaciones económicas presupuestadas para su cumplimiento.*

*Durante el curso 2022-2023 se ha mantenido la oferta formativa de idiomas de las 14 Escuelas Oficiales, manteniéndose las aulas desplazadas en Arrasate y Azkoitia dependientes de la Escuela Oficial de Idiomas de Eibar.*

*Durante el curso 2022-2023 se ha mantenido la tendencia de matriculación de los años precedentes.*

*Las Escuelas Oficiales de Idiomas de la Comunidad Autónoma del País Vasco están impartiendo docencia en el curso 2022-2023 a 23.475 alumnos y alumnas, en 1.092 grupos, además de haber realizado pruebas libres a 6.239 en los meses de mayo y junio de 2022.*

*Desde la Dirección de Centros y Planificación se continúa impulsando la oferta semipresencial en las EOIs. Este curso 2022-2023 ha habido 149 grupos, un aumento considerable respecto al curso anterior.*

*Para la atención de todos estos alumnas y alumnos oficiales y libres, se ha contado con una plantilla de 308 profesores y profesoras.*

Hizkuntza Eskola Ofizialen ohiko funtzionamendua eta ekipamendua ziurtatu egin da dagokien dotazioen bidez, ikastetxe bakoitzaren berezitasunen arabera aurrez finkatutako moduluetan oinarrituta.

*El funcionamiento ordinario y el equipamiento de las Escuelas Oficiales de Idiomas, se ha asegurado a través de las correspondientes dotaciones, consignadas en base a módulos prefijados de acuerdo con las circunstancias específicas de cada centro.*

Ikasle ofizial eta libre guztientzako ebaluaketa proba bakarrak egin dituzte. Gastua 14.859,43€ eurotakoa izan da idatzizko frogetarako eta 7.047,04€ eurotakoa audio gastuetarako.

*Se han elaborado pruebas de evaluación únicas para todo el alumnado oficial y libre. El coste ha sido de 14.859,43€ para los exámenes escritos y 7.047,04€ para los audios.*

AHBZ Ikastetxeak (elkarrizketa-laguntzaileak) programak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta Hizkuntza Eskola Ofizialetan hizkuntza-laguntzaileen eskaerari erantzuten dio.

*El Programa “CRLE Centros” (auxiliares de conversación) da respuesta a la demanda de colaboradores lingüísticos en los centros de Educación Primaria y Secundaria, así como en las Escuelas Oficiales de Idiomas.*

2022. urtean, aurrekontuan, erkidego honek finantzatutako 171 elkarrizketa-laguntzaile izan dira, honela banatuta: 157 ingeles hizkuntzakoak, 9 frantses hizkuntzakoak eta 5 aleman hizkuntzakoak.

*Durante el año 2022 se ha contado en el presupuesto con 171 auxiliares de conversación financiados por esta Comunidad, distribuidos del siguiente modo: 157 de lengua inglesa, 9 de lengua francesa y 5 de lengua alemana.*

Hilean 700 euro ordaintzen zaizkie 8 hilabetez. Esleitutako aurrekontuetan 16 laguntzaile gehiago izan dira aurreko urtearen aldean.

*Se les abonan 700 euros mensuales durante 8 meses. En los presupuestos asignados ha habido un aumento de 16 auxiliares respecto al año anterior.*

2. IRAKASKUNTZA ARTISTIKOKO ETA KIROL IRAKASKUNTZAKO ESKAEREI ERANTZUNA EMATEA, IKASLEEI KALITATEZKO IRAKASKUNTZA ESKAINTZEA ETA IRAKASKUNTZA HORREN GIZARTE-TRANSFERENTZIA SUSTATZEA

*2. DAR RESPUESTA A LA DEMANDA DE ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS Y LAS ENSEÑANZAS DEPORTIVAS Y OFRECER A LOS ALUMNOS Y ALUMNAS UNA ENSEÑANZA DE CALIDAD POTENCIANDO LA TRANSFERENCIA SOCIAL DE LA MISMA*

Arte-irakaskuntzetan zein kirol-irakaskuntzetan, aurreikusitako helburuak betetzeko aurrekontuan jasotako zuzkidura ekonomikoekin bete dira.

*Tanto en las enseñanzas artísticas como en las deportivas, se han cubierto los objetivos previstos con las dotaciones económicas presupuestadas para su cumplimiento.*

Osasun-egoeragatik aurreko bi urteetan izandako zailtasunen ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko musika-irakaskuntzako ikastetxe guztiek partekatzen dituzten hiru proiektuen jarduera normaltasunez garatu da: EIO (Euskadiko Ikasleen Orkestra) bi modalitatetan (EIO eta EIO Txiki), EIJO (Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra) eta Musika-Gazteen Lehiaketa. Parte hartzaileak kontserbatorioetako eta musika eskoletako ikasleak izan dira: EIOon, 85; EIO Txikin, 91; EIJOn, 26; eta Musika Gazteen Lehiaketan, 116, kategoria desberdinetan. Orkestrek, guztira, 10 kontzertu eta 2 entsegu orokor egin dituzte.

*Tras las dificultades de los dos años anteriores por la situación sanitaria la actividad de los tres proyectos que comparten todos los centros de enseñanzas musicales de la Comunidad Autónoma Vasca se ha desarrollado con normalidad: EIO (Euskadiko Ikasleen Orkestra) en sus dos versiones (EIO y EIO Txiki), EIJO (Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra) y Concurso de Jóvenes Músicos. Los participantes han sido alumnos y alumnas de conservatorios y escuelas de música: en EIO, 85, en EIO Txiki, 91, en EIJO, 26, y en el Concurso Jóvenes Músicos, 116, en las diferentes categorías. Las orquestas han realizado en total 10 conciertos y 2 ensayos generales.*

Proiektu bakoitza kontserbatorio bateko irakasle batek koordinatu du, ondoko koordinatzaile batek, bik edo hiruk lagunduta, proiektuaren arabera.

*Cada uno de los proyectos ha sido coordinado por un profesor de un conservatorio, apoyado por 1, 2 o 3 coordinadores adjuntos, dependiendo del proyecto.*

Hezkuntza Sailaren titulartasuneko hiru kontserbatorioetan musikako ikasketa profesionalak sustatzeko bidean jarraitzeko jarraipen- eta plangintza-jarduerak egin dira. 2021-2022 ikasturtean 1.283 ikasle matrikulatu dira, 576 oinarrizko irakaskuntzetan eta 707 irakaskuntza profesionaletan.

*Se han realizado distintas actuaciones de seguimiento y planificación para continuar en el camino de potenciación de las enseñanzas profesionales de música en los tres conservatorios de titularidad del Departamento. En el curso escolar 2022-2023 se han matriculado a 1.283 alumnos y alumnas, 576 en las enseñanzas elementales y 707 en las enseñanzas profesionales.*

Lutheriako Euskal Eskolan ere matrikulazio-kopurua mantentzen da, non 20 ikaslek Lutheria-ikasketak egiten dituzten.

*Se mantiene también los niveles de matriculación en, la Escuela Vasca de Luthería, donde 20 alumnos y alumnas realizan las enseñanzas de Luthería.*

2022an, mantendu egin dira sailaren mendekoak ez diren musika-ikastetxeentzako laguntzak, musika-eskolak eta oinarrizko irakaskuntza eta irakaskuntza profesionaletako

*En 2022 se ha mantenido las ayudas a los centros musicales de enseñanza no dependientes del departamento para colaborar en la financiación de las*

zentro baimenduak finantzatzen laguntzeko.

Udal titulartasuneko ikastetxeei egindako deialdian 45 udal izan dira onuradun, 21.731 ikasle artatu dituzte. Zentroen %60ri gastuaren %33 finantzatu zaie. Gainerakoek aurreikusitako hezkuntza-estandarrean zenbatetsitakoa baino gastu handiagoa izan dute.

Ikastetxe pribatuei egindako deialdian bi ildo daude:

a) %25eko edo hortik gorako udal-finantzaketa duten ikastetxe pribatuentzat: 26 ikastetxe parte-hartzaile, guztiak onartuak, 7.806 ikasle artatzen dituztenak.

b) Udal-finantzaziorik gabeko ikastetxe pribatuentzat: 20 ikastetxe onuradun: 3.868 ikasle.

Oro har, ikastetxe kopurua eta ikasle kopurua egonkor mantendu dira.

Bestalde, eutsi egin zaio Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteari (EHME) emandako diru-laguntza izendunari. Elkarte horrek 68 ikastetxe ditu elkartuta, 29.160 ikasle inguru, eta funtsezko laguntza da hezkuntza-sailarentzat musika-eskolen kudeaketaren hainbat arlotan.

Musikeneri, Euskal Autonomia Erkidegoko Goi Mailako Musika Ikastegiari, haren jarduera gauzatzeko eman zaio finantzazioa. Guztira 125 irakasle, 23 pertsonal ez irakasle eta 416 matrikulazio ditu.

I·D arte Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi Mailako Eskolan eskaintza sendotu egin da, bi espezialitaterekin diseinuko goi-mailako irakaskuntzetan eta hiru ziklorekin ikasketa profesionaletan, gaztelaniaz zein euskaraz. Ikasturte honetan, 340 ikasle matrikulatu dira goi-mailako irakaskuntzetan eta 104 ikasle zikloetan.

Halaber, Bizkaiko eta Gipuzkoako bigarren hezkuntzako ikastetxeetan ematen diren 4 zikloak mantentzen dira eta 91 ikaslek artatu dituzte.

Bestalde, Argi Arte APDIBri emandako laguntza izendunari eutsi zaio, bere hezkuntza-eskaintza finantzatzen laguntzeko: 81 ikasle hartu dituzten 3 heziketa-ziklo.

Arte dramatikoko eta dantzako irakaskuntzen eskaintza mantendu egin da Dantzerti ADDGEn: ikasturte honetan 98 ikasle izango dira, 35 Dantzan (Koreografia eta Interpretazioa) eta 63 ikasle eta Arte Dramatikoko Irakaskuntzan (Interpretazioa).

Era berean, dirulaguntza izendunari eutsi zaio 2021-2022 ikasturterako Gasteizko Udalaren titulartasuneko Dantza Irakaskuntza Profesionaleko Kontserbatorioa finantzatzeko, azken hori baita dantzako ikasketa profesionaletan irakaskuntza arautuak eskaintzen dituen ikastetxe bakarra. Guztira, 108 ikasle matrikulatu dira.

Kirolene Hezkuntza Sailaren titulartasuneko Kirol Irakaskuntzen Zentroa hedatzeko eta sendotzeko prozesuarekin jarraitzen da. Zentro honek kirol-

*escuelas de música y los centros autorizados de enseñanzas elementales y enseñanzas profesionales.*

*En la convocatoria a los centros de titularidad municipal han resultado beneficiarios 45 ayuntamientos, que atienden a 21.731 alumnos y alumnas. Al 60% de los centros se les ha financiado el 33% del gasto. El resto ha presentado un gasto más elevado que el estimado en el estándar educativo previsto.*

*La convocatoria a los centros privados tiene dos líneas:*

*a) Para centros privados con financiación municipal igual o superior al 25%, con 26 centros participantes, todos ellos admitidos: 7.806 alumnos y alumnas.*

*b) Para Centros privados sin financiación municipal, con 20 centros beneficiarios: 3.868 alumnos y alumnas*

*En general, tanto el número de centros como el número de alumnado se ha mantenido estable.*

*Por otro lado, se ha mantenido la subvención nominativa a la Asociación de Escuelas de Música de Euskal Herria (EHME). Esta asociación cuenta con 68 centros asociados con un total de 29.160 alumnos y alumnas aproximadamente y es un apoyo fundamental para el departamento de educación en varios ámbitos de la gestión de las escuelas de música*

*Musikene, Centro Superior de Música del País Vasco, ha sido financiado para la realización de su actividad. Cuenta con 125 profesores, 23 personal no docente y 416 matriculaciones.*

*La oferta formativa de la Escuela de Artes y Superior de Diseño de Vitoria-Gasteiz I·D arte se ha consolidado, con dos especialidades en las enseñanzas superiores de diseño y con tres ciclos en las enseñanzas profesionales, tanto en castellano como en euskera. Este curso, se han matriculado 340 alumnos y alumnas en enseñanzas superiores y 104 alumnos y alumnas en ciclos.*

*Asimismo, se mantienen los 4 ciclos que se imparten en centros de secundaria de Bizkaia y Gipuzkoa con una matrícula de 91 alumnos y alumnas.*

*Por otro lado, se ha mantenido la ayuda nominativa a CAAPD Argi Arte con el fin de contribuir a la financiación de su oferta educativa: 3 ciclos formativos que ha acogido a 81 alumnos y alumnas.*

*La oferta de las enseñanzas de arte dramático y danza se ha mantenido en la ESADD Dantzerti: este curso acoge a 98 alumnos y alumnas, 35 en las enseñanzas de Danza (Coreografía e Interpretación) y 63 alumnos y alumnas y en las Enseñanzas de Arte Dramático, (Interpretación).*

*También se ha mantenido la subvención nominativa para la financiación del Conservatorio de Enseñanza Profesional de Danza de titularidad municipal de Vitoria-Gasteiz para el curso 20212022, que es el único centro que oferta enseñanzas regladas en las enseñanzas profesionales de danza. En total, ha tenido matriculados 108 alumnos y alumnas.*

*Se continúa con el proceso de expansión y consolidación del Centro de Enseñanzas Deportivas de titularidad del Departamento de Educación, Kirolene. Este centro imparte*

teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak lortzeko heziketa-zikloak ematen ditu, hainbat espezialitatetan. Egia esan, ikastetxe honetan hain berezia den egutegiak ez du aukerarik ematen gainerako irakaskuntzekin konparazio estatistiko bat egiteko. 2022ean zehar (2021/2022 eta 2022/2023 ikasturteen artean) 600 ikaslek 787 matrikula egin dituzte ikastetxean.

*ciclos formativos conducentes al título de Técnico Deportivo y Técnico Deportivo Superior, en una amplia variedad de especialidades. Ciertamente, el calendario tan peculiar en este centro no permite hacer una comparación estadística con el resto de enseñanzas. A lo largo de 2022 (a caballo entre el curso 2021-2022 y 2022-2023) 600 alumnos y alumnas ha realizado 787 matrículas en el centro.*

**PROGRAMA**

4225 HEZKUNTZA BERRITZEA ETA IRAKASLEAK ETENGABE PRESTATZEA

**ARDURADUNA**

07 HEZKUNTZA

IKASKUNTZAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ZUZENDARITZA ETA ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARITZA

***PROGRAMA***

*4225 INNOVACIÓN EDUCATIVA Y FORMACIÓN PERMANENTE DEL PROFESORADO*

***RESPONSABLE***

*07 EDUCACIÓN*

*DIRECCIÓN DE APRENDIZAJE E INNOVACIÓN EDUCATIVA Y DIRECCIÓN PARA LA DIVERSIDAD E INCLUSIÓN EDUCATIVA*

## HELBURUA

1. HEZKUNTZA BERRITZEA BULTZATZEA
2. PREST_GARA PLANA
3. ERAKUNDEEN PARTAIDETZARAKO ETA ELKARLANERAKO BIDEAK
4. BERRITZEGUNEETAKO AHOLKULARIEN PRESTAKUNTZA
5. IKUSKARITZA TEKNIKOKO KIDEEN PRESTAKUNTZA
6. HEZKUNTZA-IKERKETETAN KOLABORAZIOA
7. KULTURARTEKOTASUN PROGRAMA
8. BIZIKIDETZA –HEZKIDETZA PROGRAMAK
9. HEZKUNTZA ARLOKO JARDUNALDIAK

## *OBJETIVO*

*1. IMPULSO A LA INNOVACIÓN EDUCATIVA*
*2. PLAN PREST_GARA*
*3. VÍAS DE COLABORACIÓN Y PARTICIPACIÓN DE LAS INSTITUCIONES*
*4. FORMACIÓN DE LAS ASESORÍAS DE LOS BERRITZEGUNES*
*5. FORMACIÓN DE MIEMBROS DE LA INSPECCIÓN EDUCACIÓN*
*6. COLABORACIONES EN INVESTIGACIONES EDUCATIVAS*
*7. PROGRAMA DE INTERCULTURALIDAD*
*8. PROGRAMAS CONVIVENCIA Y COEDUCACIÓN*
*9. JORNADAS EDUCATIVAS*

## BETETZE MAILA

1. HEZKUNTZA BERRITZEA BULTZATZEA

2022ko uztaileko Aginduaren bidez, Hezkuntza sailburuak dei egin zien unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuei, 2022-2023 ikasturtean zehar egin beharreko berrikuntza-proiektuak egin zitzaten ikastetxean. Deialdiak aurreko urteetako eskemaren antzekoa jarraitzen badu ere, ikastetxeetan prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuei ekitea ahalbidetuz, digitalizazioaren, curriculum-garapenaren eta bizikidetzaren, ongizate emozionalaren eta aniztasunaren arloko berrikuntzaren arloetan zentratzen da bereziki. 16 prestakuntza-proiektu eta 89 berrikuntza-proiektu ematea ebatzi da. Deialdia itunpeko ikastetxeetara bakarrik bideratu da.

Eremu publikoan, etorkizuneko ikasgelarekin lotutako proiektu pilotu bat hasi da. Bertan, hiru lurraldeetako 10 ikastetxek eta hainbat tipologikoak parte hartzen ari dira, eta horren emaitza lagungarria izango da 2023-2024

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. IMPULSO A LA INNOVACIÓN EDUCATIVA*

*Mediante Orden de julio de 2022, el Consejero de Educación convocó a los centros privados concertados de enseñanza no universitaria para la realización de diferentes Proyectos de Innovación en el Centro a llevar a cabo a lo largo del curso 2022-2023. La convocatoria, si bien sigue un esquema similar al de años anteriores, posibilitando el abordaje de proyectos de formación e innovación en centros, se centra en estos últimos específicamente en las áreas de digitalización, de desarrollo curricular y de innovación en el ámbito de la convivencia, bienestar emocional y diversidad. Se ha resuelto da concesión de 16 proyectos de formación y 89 proyectos de innovación. La convocatoria se ha destinado únicamente a centros concertados.*

*En el ámbito público se ha iniciado un proyecto piloto relacionado con el aula del futuro en el que están participando 10 centros de los tres territorios y diferentes tipologías, cuyo resultado ayudará a conformar una nueva*

ikasturtean irakaskuntza publikorako deialdi berri bat osatzeko.

PLURILITERACIES prestakuntza-deialdia alfabetatze anitzen inguruko prestakuntza espezifikoan parte hartu nahi duten ikastetxeei eta irakasleei zuzenduta dago: 10 plaza Lehen Hezkuntzarako eta 10 plaza Bigarren Hezkuntzarako. Prestakuntza honen helburua da parte hartzen duten irakasleei aukera ematea “Pluriliteracies for deeper learning” kontzeptu-esparrua eta ikasgelan duen aplikazio praktikoa sakon ezagutzeko. Era berean, parte-hartzaileek aukera dute ikaskuntza sakona eta bertan erabiltzen diren estrategiak sustatzen dituzten materialak diseinatzeko eta ikasgelako praktikak aztertu eta abian jartzeko. Horrela, alfabetatze anitzek ikasleen ikaskuntzan duten eraginaz jabetzea nahi da.

Ikastetxearen hizkuntza-proiektua garatzeko prestakuntza-proiektuetan (Eleaniztasunerantz), 2022-2023 ikasturtean, bi modalitatetan banatu da:

A Modalitatea. Hizkuntzen tratamendu integral eta integratuan sakonduko duen ikastetxeko hizkuntza-proiektua, bi hizkuntzak koofizialak eta atzerriko hizkuntzak kontuan hartuko dituena.

B Modalitatea. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, atzerriko hizkuntzetarako curriculum-arloen irakaskuntzan sakonduko duena.

Sare publikoan 122 proiektu egin dira (76 A modalitatean eta 46 B modalitatean). Itunpeko sarean, dagozkien elkarte eta federazioen bidez, 196 ikastetxetan garatu dira proiektuak (164 A modalitatean eta 32 B modalitatean). Guztira, 318 ikastetxek parte hartu dute, aurreikusitako 325 ikastetxe baino apur bat gutxiago. Hala ere, azpimarratu behar da ikastetxeek nabarmen egin dutela gora, sare publikoan zein itunpekoan, arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzan irakastera bideratutako hizkuntza-proiektuetan, aurreikuspenak nabarmen gaindituz.

2022an, heldutasun teknologikoko ziurtapen-maila berriak egin ziren, Sare Hezkuntzaren deialdian baliabide digitalen erabilera maila txikiena duten zentroei errazteko. Guztira, 60 ikastetxek lortu dute oinarrizko maila bat edo maila hori gainditu dute maila ertainean edo altuagoan sartzeko.

2022an, hezkuntza zientifikoa, teknologikoa eta ekintzailetza sustatuz hezkuntza-berrikuntza bultzatzea helburu duten ikastetxe publikoei zuzendutako STEAM proiektuen deialdiak aurkeztutako proiektuen kalitatean eragin du, irizpideak eta baremazioa aldatuz.

Deialdi honekiko interesa berretsi da; izan ere, STEAM ekimenak garatzea, azken urteotan, sailaren lehentasuna da, eta ikastetxe publikoentzako deialdi hau horietako bat da. Hala ere, ikastetxeen parte-hartzea sustatu beharko da, guztira 167 proiektu onartu baitira, aurreikusitako 180 proiektuak baino zertxobait gutxiago.

*convocatoria destinada a la enseñanza pública durante el curso 2023-2024.*

*La convocatoria de formación PLURILITERACIES se dirige a centros y profesorado, 10 plazas para Educación Primaria y 10 plazas para Educación Secundaria, que deseen participar en la formación específica en torno a las alfabetizaciones múltiples. El objetivo de esta formación es ofrecer al profesorado participante la posibilidad de conocer a fondo el marco conceptual “Pluriliteracies for deeper learning” y su aplicación práctica en el aula. Asimismo, las personas participantes tienen la oportunidad de diseñar materiales y analizar y poner en marcha prácticas de aula que promueven el aprendizaje profundo y las estrategias que se utilizan en el mismo, de esta manera se busca adquirir conciencia del impacto que las alfabetizaciones múltiples tienen en el aprendizaje.*

*En los Proyectos de formación para el desarrollo del proyecto lingüístico de centro (Eleaniztasunerantz) en el curso 2022-2023 se ha mantenido la división en dos modalidades:*

*Modalidad A. Proyecto Lingüístico de centro que profundice en el tratamiento integral e integrado de las lenguas, que tendrá en cuenta las dos lenguas cooficiales y las lenguas extranjeras.*

*Modalidad B. Proyecto Lingüístico de centro que profundice en la enseñanza de las áreas curriculares en lenguas extranjeras.*

*En la red pública se han realizado 122 proyectos (76 en la modalidad A y 46 en la B). En la red concertada, a través de sus respectivas asociaciones y federaciones, se han desarrollan proyectos en 196 centros (164 en la modalidad A y 32 en la modalidad B). En total son 318 centros, es decir, una participación un poco por debajo de los 325 centros previstos. No obstante, se debe remarcar el ascenso destacado de los centros, tanto en la red pública como concertada, de los proyectos lingüísticos centrados en la impartición de áreas o materias en lengua extranjera, superando ampliamente las expectativas.*

*El año 2022 se realizaron nuevos niveles de certificación en madurez tecnológica con el objetivo de facilitar a aquellos centros con menor nivel en la utilización de recursos digitales en la participación de la convocatoria de Sare Hezkuntza. Un total de 60 centros han alcanzado un nivel básico o superado el mismo para acceder al nivel intermedio o superior.*

*En 2022 la convocatoria de proyectos STEAM dirigida a los centros públicos que tiene por objeto el impulso de la innovación educativa a través de la promoción de la educación científica, tecnológica y el emprendizaje ha incidido en la calidad de los proyectos presentados, modificando los criterios y baremación.*

*Se ha reafirmado el interés por esta convocatoria ya que el desarrollo de iniciativas STEAM es, en los últimos años, una prioridad del departamento, y esta convocatoria para los centros públicos es una de ellas. Sin embargo, debería intentarse aumentar la participación de los centros, pues se han aceptado un total de 167 proyectos, un número algo inferior a los 180 previstos.*

Itunpeko irakaskuntzaren esparruan 89 proiektuk jaso dute dirulaguntza, aurreko urtean baino gehiagok.

Ikastetxe berritzaileen sareak eta bestelako esperientzia pedagogiko bereziak sortzeari dagokionez, honako jarduera hauek egin dira 2022-2023 ikasturtean:

- 63 ikastetxe publikok parte hartzen dute Kalitatea Hezkuntzan programan.
- 19 ikastetxe publiko ari dira Amara Berri programa garatzen.
- 26 Ikaskuntza Komunitateak programan parte hartzen duten ikastetxe publikoak. Aurreko ikasturtekoa baino zentro bat gutxiago.
- Eskola Txikiak 56 ikastetxerekin jarraitzen du.

2022an ere, hezkuntzaren etapa guztietan, ikasleei eta irakasleei zuzendutako mugikortasun- eta lankidetza-proiektuak bultzatu dira, Europar Batasuneko programen baitan, ikasle eta irakasleek oraingo eta etorkizuneko hezkuntza-esparru europarrean jarduteko behar dituzten konpetentziak eskura ditzaten, eta hala, Europako dimentsioa gure ikastetxeetan gara dezaten.

Erasmus+ programan 74 ikastetxek hartu dute parte eta 90 proiektu jorratu dituzte. Haien artean 26 ikastetxe akreditatuak izan dira Europako Batzordetik 2027 urterarte diru-laguntzak automatikoki jasotzeko bermea.

ETWINNING modalitatean 412 proiektuetan 1452 irakaslek hartu dute parte.

Ikastetxeetan Europako dimentsioa zabaltzeko Europako Parlamentuko Eskola Enbaxadore programan 6 ikastetxek hartu dute parte, 6 proiektuetan.

Aurreko urteetan bezala, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak (EUROBASQUE), Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, Francisco Javier de Landaburu Primus saria deitzen du, Lehen Hezkuntzako ikastetxeei zuzendua eta CIVIS saria, eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. CIVIS hutsik geratu da, eta PRIMUSen parte-hartzea oso txikia izan da; beraz, EUROBASQUErekin batera, ikasleengana iristeko modurik egokienari buruzko hausnarketa-aldia hasi da.

Batxilergoko, GMHZko, Arte Irakaskuntzetako eta Kirol Irakaskuntzetako ikasleekin egindako jarduera praktikoak Euskal Herriko Unibertsitatearen errealitatera hurbiltzeko eta DBHko ikasleen orientazio akademikoa bultzatzeko, ekintza hauek egin dira:

- 61 jarduera praktikotan hainbat ikastetxetako 1.886 ikaslek hartu dute parte. Parte-hartzaileen kopurua aurreikusitakoa baino askoz txikiagoa da.
- Orientazio-jarduerak (orientaTU). Ikastetxeetako 146 orientatzailek parte hartzen duten jardunaldi batean, bereziki 4 gradu aztertu dira, eta, zeharkako arlo gisa, prestakuntza duala unibertsitate-eremuan.

*En el ámbito de la enseñanza concertada se han subvencionado 89 proyectos, por encima del número del año anterior.*

*En cuanto a la creación de redes de centros innovadores y otras experiencias pedagógicas singulares se ha realizado las siguientes actuaciones en el curso 2022-2023:*

- *63 centros públicos participan en el programa Kalitatea Hezkuntzan.*
- *19 centros públicos están desarrollando el programa Amara Berri.*
- *26 los centros públicos que participan en el programa Comunidades de Aprendizaje. Un centro menos que el curos anterior.*
- *Eskola Txikiak se mantiene con 56 centros.*

*Durante 2022, en todas las etapas educativas, se han impulsado proyectos de movilidad y cooperación dirigidos al alumnado y al profesorado para que, en el marco de los programas de la Unión Europea, el alumnado y el profesorado adquieran las competencias necesarias para actuar en el marco educativo europeo actual y futuro, desarrollando la dimensión europea en nuestros centros.*

*En el programa Erasmus+ han participado 74 centros y se han desarrollado 90 proyectos. 26 de esos centros han sido acreditados por la Comisión Europea para poder tener la garantía de recibirán fondos del programa automáticamente hasta 2027.*

*En la modalidad ETWINNING han participado 1.452 profesores y profesoras en 412 proyectos.*

*Han participado 6 centros en el programa Escuelas Embajadoras del Parlamento Europeo con 6 proyectos para reforzar la dimensión europea de los centros.*

*Como en años anteriores, el Consejo Vasco del Movimiento Europeo (EUROBASQUE) en colaboración con el Departamento de Educación convoca el Premio Francisco Javier de Landaburu Primus, destinado a centros de Educación Primaria y CIVIS, que se orienta a alumnos y alumnas de la Enseñanza Secundaria. CIVIS ha quedado desierto y en PRIMUS la participación ha sido muy escasa, por lo que, junto con EUROBASQUE, se ha iniciado un periodo de reflexión sobre la forma más adecuada de llegar al alumnado.*

*Para acercar a la realidad de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea las actividades prácticas con el alumnado de Bachillerato, CFGS, Enseñanzas Artísticas y Enseñanzas Deportivas y favorecer la orientación académica del alumnado de la ESO se ha realizado las siguientes acciones:*

- *61 actividades prácticas en las que han participado 1.886 alumnas y alumnos de diferentes centros educativos. El número de personas participantes es muy inferior al previsto.*
- *Actividades de Orientación (orientaTU). Una jornada en las que participan 146 orientadores y orientadoras de centros educativos, en la que se han analizado especialmente 4 grados y, como área transversal, la formación dual en el ámbito universitario.*

- "Ikasleen ahotsak" jardueran, desgaitasuna duten pertsonek, haien antzeko baldintzetan EHUko ikasleen unibertsitate-esperientzia ezagutzeko aukera izan dute.
- 16 eta 17 urteko ikasleei zuzendutako "Etorkizuna sortzen" jarduera. 39 ikastetxetako 58 orientatzailek parte hartu dute.

Agenda 21 programa Ekonomi garapena Jasangarritasuna eta Ingurugiro Sailarekin batera lanean jarraitzen da,. 2021/22ko ikasturtean 447 ikastetxek eta 1148 irakaslek parte hartu dute programa honetan.

- *Actividad "Ikasleen ahotsak", en la que personas con discapacidad han tenido la oportunidad de conocer, la experiencia universitaria de alumnos/as de la UPV en condiciones similares a las suyas.*
- *Actividad "Etorkizuna sortzen", dirigida a alumnos y alumnas de 16 y 17 años. Han participado 58 orientadoras y orientadores de 39 centros.*

*Se mantiene la colaboración con el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente para llevar a cabo el programa Agenda 21. El curso 2021-2022 han participado 1.148 personas de 447 centros.*

2. PREST_GARA PLANA

Prest_Gara planaren barruko banakako prestakuntza-ikastaroetan 5.015 plaza eskaini dira eta 3.869 irakaslek parte hartu dute.

Irakasleak prestatzeko etapa eta sare guztietako ikastaro mota honakoak dira:

- 10 ikastaro, Haur Hezkuntzako irakasleentzat.
- 18 ikastaro, Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailako irakasleentzat.
- 29 ikastaro, Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat (DBH eta Batxilergoa).
- 8 ikastaro, hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleentzat.
- 5 ikastaro, Helduen Hezkuntzako irakasleentzat.
- 101 ikastaro, irakasle guztientzat.
- 26 ikastaro orokor, atzerriko hizkuntzetan.
- 153 ikastaro online eta 41 ikastaro aurrez-aurre.

Berritzeguneek honako prestakuntza-jarduera hauek bultzatu dituzte:

- 320 ikastaro 20.985 parte-hartzailerekin
- 200 mintegi, 2.366 parte-hartzailerekin
- 27 ikastaro Ingurugela 545 parte-hartzailerekin

*2. PLAN PREST_GARA*

*En los cursos individuales de formación dentro del plan Prest_Gara se han ofertado 5.015 plazas y han tomado parte 3.869 profesores y profesoras .*

*Los tipos de cursos en todas las etapas y redes de formación del profesorado son:*

- *10 cursos dirigidos al profesorado de Infantil.*
- *18 cursos dirigidos al profesorado de Primaria y 1º y 2º de la ESO.*
- *20 cursos dirigidos a Educación Secundaria (ESO y Bachillerato).*
- *8 cursos dirigidos al profesorado de Escuelas Oficiales de Idiomas.*
- *5 cursos dirigidos al profesorado de Educación de Adultos.*
- *101 cursos dirigidos al profesorado en general.*
- *26 Cursos generales de idiomas extranjeros.*
- *153 cursos on-line y 41 cursos presenciales.*

*Las actividades formativas impulsadas por Berritzegunes han sido:*

- *320 cursos con 20.985 participantes*
- *200 seminarios con 2.366 participantes*
- *27 cursos Ingurugela con 545 participantes*

3. ERAKUNDEEN PARTAIDETZARAKO ETA ELKARLANERAKO BIDEAK

Aurreikusita zegoen bezala sinatu dira:

- IVAPekin lankidetza-hitzarmena unibertsitateaz kanpoko irakasleen etengabeko prestakuntza garatzeko.
- UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioarekin lankidetza-hitzarmena.

*3. VÍAS DE COLABORACIÓN Y PARTICIPACIÓN DE LAS INSTITUCIONES*

*Se han firmado tal y como estaba previsto:*

- *Convenio de colaboración con el IVAP para el desarrollo del plan de formación permanente del profesorado no universitario.*
- *Convenio de colaboración con la fundación de cursos de verano del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.*

4. BERRITZEGUNEETAKO AHOLKULARIEN PRESTAKUNTZA

Berritzeguneetan 13 ekintza antolatu dira eta 439 parte-hartzaile egon dira.

*4. FORMACIÓN DE LAS ASESORÍAS DE LOS BERRITZEGUNES*

*Se han organizado 13 actividades formativas que han contado con 439 participantes.*

5. IKUSKARITZA TEKNIKOKO KIDEEN PRESTAKUNTZA

Hezkuntza-ikuskaritzaren eginkizunen artean dago eskola-komunitate osoaren hezkuntza-eskubideak eta -betebeharrak bermatzea.

Gainera, lagundu egin behar du ikastetxeen funtzionamendua hobetzen eta ikastetxeek ikasleei ahalik eta hezkuntza-zerbitzurik onena eskaintzen, ahalik eta prestakuntza-emaitzarik onenak lor ditzaten, ekitatearen, bikaintasunaren eta bizikidetza positiboaren esparruan.

Era berean, hezkuntza-sistemari buruz duen ezagutzatik abiatuta, hezkuntza-administrazioko arduradunei aholkuak eman behar dizkie erabakiak hartzea errazteko.

Horregatik, beharrezkoa da profesional prestatuak eta eguneratuak izatea, adierazitako eremuetatik datozen eskaera etengabe eta aldakorrei eraginkortasunez erantzuteko.

2021-2022 ikasturtean 20 prestakuntza-ekintza egin ziren, hainbat esparrutan egituratuta: hezkuntza-araudia, dokumentazio akademikoa, bizikidetza, indarkeriarik gabeko komunikazioa, eskola-antolaketa eta metodologia, ebaluazioa, lidergoa, estresaren kudeaketa, etab.

Gainera, berdinen arteko prestakuntzaren bidez beren jarduera gauzatzearekin zuzenean lotutako beste batzuk egin dira.

88 ikuskariek parte hartu dute.

*5. FORMACIÓN DE MIEMBROS DE LA INSPECCIÓN EDUCACIÓN*

*La inspección educativa tiene entre sus funciones garantizar los derechos y deberes educativos de toda la comunidad escolar.*

*Además, ha de contribuir a la mejora del funcionamiento de los centros educativos y a que estos ofrezcan el mejor servicio educativo posible a su alumnado, a fin de que este obtenga los mejores resultados formativos posibles, en un marco de equidad, excelencia y de convivencia positiva.*

*A su vez, a partir de su conocimiento del sistema educativo, ha de asesorar a los y las responsables de la Administración educativa a fin de facilitar la toma de decisiones.*

*Por ello es necesario disponer de profesionales formados y actualizados que respondan con eficacia y eficiencia a las continuas y cambiantes demandas procedentes de los ámbitos indicados.*

*Durante el curso 2021-2022 se realizaron 20 acciones formativas estructuradas en diferentes ámbitos, relacionados con la normativa educativa, documentación académica, convivencia, comunicación no violenta, organización escolar y metodología, evaluación, liderazgo, gestión del estrés, etc.*

*Además, se realizan otras directamente relacionadas con el desempeño de su actividad mediante formación entre iguales.*

*Han participado los 88 inspectoras e inspectores.*

6. HEZKUNTZA-IKERKETETAN KOLABORAZIOA

ISEI-IVEIren lankidetzak hainbat dimentsio izan ditu hezkuntza-ikerketekin.

DREAM ikerketa-taldearekin Hizkuntza Akademikoaren gerapena ikuspegi eleaniztunetik (translanguaging). ikerketaren aplikazioa 2022/2023 ikasturtera arte atzeratu zen, baina lankidetza mantentzen da.

Beste bi ikerketa daude, psikoidazketa eta AA.C., non ISEI-IVEIren zeregina alderdi puntualetan eta kudeaketa-alderdietan laguntzea den. Ikerketa horiek fase bat amaitu zuten 2021-2022 ikasturtean, eta jarraipena dute hurrengo ikasturtean.

*6. COLABORACIONES EN INVESTIGACIONES EDUCATIVAS*

*La colaboración desde el ISEI-IVEI con diferentes investigaciones educativas ha tenido dimensiones diferentes.*

*Con el equipo investigador DREAM en la investigación de Desarrollo de la lengua académica desde el plurilingüismo (translanguaging) la aplicación de la investigación se retrasó hasta el curso 2022-2023, pero se mantiene la colaboración.*

*Hay otras dos investigaciones, psicoescritura y AA.CC. donde el papel del ISEI-IVEI es de colaborar en aspectos puntuales y de gestión. Son investigaciones que finalizaron una fase en el curso 2021-2022 y que tienen continuidad el siguiente curso.*

7. KULTURARTEKOTASUN PROGRAMA

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abuztuaren 30eko Aginduaren bidez, dei egin zitzaien Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi zuten irabazi-asmorik gabeko erakundeei eskola-esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko 2022-2023 ikasturtean.

2022 urtean, 4 erakundek garatu dituzte ekintzak ikasle ijitoekin eta 60 ikastetxek hartu dute parte. Beraz,

*7. PROGRAMA DE INTERCULTURALIDAD*

*Mediante la Orden de 30 de agosto de 2022, del Consejero de Educación, se convocaron a entidades sin ánimo de lucro, que desearan colaborar con el Departamento de Educación, en el desarrollo, en el ámbito escolar, de actividades educativas dirigidas al alumnado gitano, durante el curso 2022-2023.*

*En el año 2022 han sido 4 las entidades que han desarrollado actividades con el alumnado gitano y han*

deialdiaren helburua betetzen jarraitzen da eta, horregatik, aurrekontuari eusten zaio.

*participado 60 centros. Por lo tanto, se sigue cumpliendo con el objetivo de la convocatoria y por ello se mantiene el presupuesto.*

8. BIZIKIDETZA –HEZKIDETZA PROGRAMAK

Hezkuntzako Sailburuordearen, martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez, EAEko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei zuzendutako jarraibideak onartu ziren, hezkidetza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu global, sistematiko eta integratuan lantzeko jarduketa-proiektuak gauzatzeko eskaera egiteko 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetarako.

2022an, 49 ikastetxe publikok egin dituzte jarduketa-proiektuak. Deialdiak 50 ikastetxe hartzen ditu gehienez.

Hezkuntzako Sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduaren bidez, dei egin zitzaien EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeei, hezkidetza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu global, sistematiko eta integratuan lantzeko jarduera-proiektuak egitea eskatzeko, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan.

2022an, 23 itunpeko ikastetxek jarduera-proiektuak aurrera eraman dituzte. Deialdiak 50 ikastetxe onartu daitezkela esaten du. Itunpeko ikastetxeetako deialdia ohi baino beranduago argitaratu zen, eskaerak aurkezteko epea uztailean bukatuz, hau da, 2021-2022 ikasturtea bukatu ondoren.

9. HEZKUNTZA ARLOKO JARDUNALDIAK

Sailaren lehentasunei lotutako 3 jardunaldi egin dira (2 Curriculum eta Hezkuntza 1).

*8. PROGRAMAS CONVIVENCIA Y COEDUCACIÓN*

*Mediante la Resolución de la Viceconsejera de Educación de 9 de marzo de 2022, se aprobaron las instrucciones dirigidas a los centros públicos de Educación Primaria y Educación Secundaria de la CAPV, para la petición de solicitud de realización de proyectos de actuación, que les permitiera abordar la coeducación y la prevención y detección precoz de la violencia contra las mujeres de manera global, sistemática e integrada en su centro educativo para los cursos 2022-2023 y 2023-2024.*

*A lo largo del año 2022, 49 centros públicos han realizado proyectos de actuación. La convocatoria acoge hasta 50 centros.*

*Mediante la Orden de 7 de junio de 2022, del Consejero de Educación, se convocaron a los centros concertados de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato de la CAPV, para solicitar la realización de proyectos de actuación que les permitiera abordar la coeducación, la prevención y la detección precoz de la violencia contra las mujeres de manera global, sistemática e integrada durante los cursos 2021-2022 y 2022-2023.*

*A lo largo del año 2022, 23 centros concertados han realizado proyectos de actuación. La convocatoria acoge hasta 50 centros. La convocatoria de centros concertados se publicó más tarde de lo habitual, por lo que el plazo de solicitudes terminaba en julio, después de terminar el curso 2021-2022.*

*9. JORNADAS EDUCATIVAS*

*Se han realizado 3 jornadas vinculadas a las prioridades del Departamento (2 Curricular y 1 Educación).*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4226 ETENGABEKO IKASKUNTZA ETA HELDUEN HEZKUNTZA | *4226 APRENDIZAJE PERMANENTE Y EDUCACIÓN DE PERSONAS ADULTAS* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 07 HEZKUNTZA | *07 EDUCACIÓN* |
| IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA, PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA ZUZENDARITZA ETA TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE CENTROS Y PLANIFICACIÓN, DIRECCIÓN DE PLANIFICACIÓN Y ORGANIZACIÓN Y DIRECCIÓN DE TECNOLOGÍA Y APRENDIZAJES AVANZADOS* |

## HELBURUA

1. LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN BERRIKUNTZA ETA INTERNAZIONALIZAZIOA ETA HORIEN IKASLE ETA IRAKASLEGOAREN MUGIKORTASUNA SUSTATZEA, ERASMUS+ EUROPAKO PROGRAMAREN ESPARRUAN

2. LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL SISTEMAREN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEA

3. LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEEN EGUNERATZE ETA ESPEZIALIZAZIO TEKNOLOGIKO ETA PEDAGOGIKOA BULTZATZEA

4. HERRITARREN EZAGUTZA- ETA PRESTAKUNTZA-MAILETAN AURRERA EGITEA

5. PERTSONA HELDUEN HEZKUNTZA-ESKAEREI ESTALDURA EMATEA BEREN GARAPAEN PERTSONAL ETA PROFESIONALERAKO BEHAR DITUZTEN EZAGUTZAK ETA KUALIFIKAZIOAK ESKURATU DITZATEN

## *OBJETIVO*

*1. FOMENTAR LA INNOVACIÓN Y LA INTERNACIONALIZACIÓN DE LOS CENTROS DE FORMACIÓN PROFESIONAL Y LA MOVILIDAD DE SU ALUMNADO Y PROFESORADO, EN EL MARCO DEL PROGRAMA ERASMUS+*

*2. IMPULSAR LA INTERNACIONALIZACIÓN DEL SISTEMA VASCO DE FORMACIÓN PROFESIONAL*

*3. PROMOVER LA ACTUALIZACIÓN Y LA ESPECIALIZACIÓN TECNOLÓGICA Y PEDAGÓGICA DEL PROFESORADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL*

*4. AVANZAR EN LOS NIVELES DE CONOCIMIENTO Y FORMACIÓN DE LA CIUDADANÍA*

*5. DAR COBERTURA A LA DEMANDA DE EDUCACIÓN DE LAS PERSONAS ADULTAS PARA QUE PUEDAN ADQUIRIR LAS CUALIFICACIONES NECESARIAS QUE POSIBILITEN SU DESARROLLO PERSONAL Y PROFESIONAL*

## BETETZE MAILA

1. LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN BERRIKUNTZA ETA INTERNAZIONALIZAZIOA ETA HORIEN IKASLE ETA IRAKASLEGOAREN MUGIKORTASUNA SUSTATZEA, ERASMUS+ EUROPAKO PROGRAMAREN ESPARRUAN

Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2018ko uztailaren 5ean.

Lanbide-heziketako euskal sistema nazioartekotzea da lege honek garrantzi handiagoa eman nahi dion beste ardatz bat. Nazioartekotze-prozesua hiru esku-hartze motaren gainean eraikita dago. Lehenik, irakasle eta ikasleen truke-programak bi norabideetan: irakasle eta ikasleek beste herrialde batzuetako herrialdeetan parte hartzen dute; eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeek beste herrialde batzuetakoak hartzen dituzte. Bigarrenik, lanbide-

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. FOMENTAR LA INNOVACIÓN Y LA INTERNACIONALIZACIÓN DE LOS CENTROS DE FORMACIÓN PROFESIONAL Y LA MOVILIDAD DE SU ALUMNADO Y PROFESORADO, EN EL MARCO DEL PROGRAMA ERASMUS+*

*La Ley 4/2018, de 28 de junio, de Formación Profesional fue publicada en el Boletín Oficial del País Vasco el 5 de julio de 2018.*

*La internacionalización del sistema vasco de formación profesional es uno de los ejes sobre los que trata de incidir esta ley de forma más trascendental. Ese proceso de internacionalización se asienta sobre tres tipos diferenciados de intervención. Por una parte, los programas de intercambio de profesorado y de estudiantes en las dos direcciones: participación de profesorado y estudiantes en centros de otros países, y recepción de personas de otros*

heziketako euskal sistemaren prestakuntza-jarduerak beste herrialde batzuetan egiteko aukera, oso garrantzitsua Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora lantokiak dituzten euskal enpresentzat. Eta, hirugarrenik, Lanbide Heziketako Euskal Sistemak esperientziak esportatu behar ditu beste herrialde batzuetara, bere Lanbide Heziketako sistemak beste herrialde batzuetan diseinatu eta ezartzearen bidez, EAEko ezagutzak eta esperientziak zabaldu ahal izateko.

*países en los centros del País Vasco. En segundo lugar, la oferta de actividades formativas del sistema vasco de formación profesional en otros países, de especial importancia en el caso de empresas vascas con centros de trabajo en el exterior. Y, en tercer lugar, lo que se podría denominar la exportación de experiencias del sistema vasco de formación profesional a otros países a través del diseño e implantación de sus sistemas de formación profesional, aportando el conocimiento y experiencia existente en el País Vasco.*

Lehen esku-hartze zehatzerako, lege horren 24. artikuluak honako hau jasotzen du: euskal sistemako irakasle eta ikasleek beste herrialde batzuetako ikastetxeetan egonaldiak egin ditzaten sustatuko da, eta, aldi berean, beste herrialde batzuetako irakasle eta ikasleek lanbide-heziketako euskal sareko ikastetxeetan egonaldiak egitea.

*Para la primera intervención detallada el Artículo 24 de dicha ley recoge que se fomentarán las estancias del profesorado y estudiantes del sistema vasco en centros de otros países, y las del profesorado y estudiantes de otros países en centros del País Vasco.*

Lanbide Heziketaren Legean jasotako lehentasunezko helburuetako bat euskal lanbide-heziketaren sistemaren nazioartekotzea bultzatzea denez, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak Batasuneko hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolari buruzko "Erasmus+" programa batera finantzatzen du. "Erasmus +" programa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 11ko 1288/2013 (EB) Erregelamenduak sortu zuen, eta 2014ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra martxan egon da. Hasierako programa horren ordez, indarrean dagoena ezarri da, 2021eko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra erabiliko dena.

*Al ser el impulso de la internacionalización del sistema de formación profesional vasco uno de los objetivos prioritarios recogidos en la Ley de Formación Profesional, desde la Viceconsejería de Formación Profesional se realiza la cofinanciación del programa “Erasmus+” de educación, formación, juventud y deporte de la Unión. El programa “Erasmus +” fue creado por el Reglamento (UE) 1288/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de diciembre de 2013, y ha sido de aplicación del 1 de enero de 2014 al 31 de diciembre de 2020. Este programa inicial se ha sustituido por el actual vigente que se aplicará a lo largo del período comprendido entre el 1 de enero de 2021 y el 31 de diciembre de 2027.*

SEPIEren (Hezkuntza Internalizatzeko Espainiako Zerbitzua) orrialdean proposamenen deialdia argitaratzen da urtero, eta onartutako proiektuek baterako finantzaketa eskatu ahal izango diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari. 2021erako, erreferentzia gisa hartzen da EAC/A01/2021 2021 proposamen-deialdia, 2021eko martxoaren 25ean Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua.

*En la página del SEPIE (Servicio Español para la Internalización de la Educación) cada año se publica la convocatoria de propuestas y los proyectos aprobados podrán solicitar la cofinanciación a la Viceconsejería de Formación Profesional. Para el 2021 se toma de referencia la Convocatoria de propuestas 2021 EAC/A01/2021 publicada en el Diario Oficial de la Unión Europea el 25 de marzo de 2021*

Horrela izanda, 2021-22 ikasturtean gauzatuko diren mugikortasunak jasotzen duen Hezkuntzako sailburuaren 2021eko uztailaren 27ko Aginduaren bidez (irailaren 3ko EHAA), diru-laguntzetarako deialdia egin zen, Lanbide Heziketaren esparruan ikasteko KA1 ekintzak antolatu eta garatzeko, Erasmus+ programaren Europako esparruan.

*Así, la Orden de 27 de julio de 2021 (BOPV de 3 de septiembre), del Consejero de Educación, convoca ayudas económicas para la organización y desarrollo de acciones KA1 de movilidad para las personas por motivos de aprendizaje en el ámbito de la Formación Profesional en el marco europeo del programa Erasmus+, a desarrollar en el curso escolar 2021-2022.*

Lanbide Heziketako sailburuordearen 2021eko azaroaren 23ko Ebazpenak dirulaguntzak ematen ditu erakunde pribatuek sustatutako Lanbide Heziketako ikasleen eta irakasleen mugikortasuneko 36 proiektu diruz laguntzeko. Proiektu horien bidez, hasiera batean 983 mugikortasun diruz lagundu ziren (heziketa-zikloetako ikasleak eta irakasleak). Gainera, ikastetxe publikoei 61 Erasmus+ proiektu finantzatzeko zuzkidurak eman zitzaizkien, eta horien bidez hasieran 513 mugikortasun diruz lagundu ziren.

*La resolución de 23 de noviembre de 2021 del Viceconsejero de Formación Profesional, ha otorgado ayudas económicas para la subvención de 36 proyectos de movilidad de alumnado y profesorado de Formación Profesional, promovidos por entidades privadas, a través de los cuales se subvencionaban inicialmente 983 movilidades (alumnado y profesorado de ciclos formativos). Además, se concedieron dotaciones a centros públicos para la financiación de 61 proyectos Erasmus+ a través de los cuales se subvencionaban inicialmente 513 movilidades.*

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren finantzaketan, azkenean, 635 mugikortasun hartu dira kontuan erakunde pribatuen kasuan, eta 311 ikastetxe publikoen kasuan. Beraz, ikastetxe publikoen kasuan helburua lortu ez den arren, egoera Covid-19 pandemiaren aurreko mailetara

*Las movilidades que finalmente se han considerado en la financiación del Departamento de Educación del Gobierno Vasco han sido 635 en el caso de las entidades privadas y 311 en el de los centros públicos. Visto el número tanto de proyectos como de movilidades solicitadas inicialmente y el*

itzultzen ari da. Hasieran eskatutako proiektuen eta mugikortasunen kopurua eta benetan egindako mugikortasunen azken emaitza ikusita, Covid 19 pandemiaren aurreko mailetara iristea kostatzen ari dela pentsarazten digu.

*resultado final de movilidades realmente llevadas a cabo, nos hace pensar que está costando llegar a los niveles previos a la pandemia Covid 19.*

2. LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL SISTEMAREN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEA

